



2008ko ARGAZKI LEHIAKETA

www.alpinoartibai.org.es

Aurten ere Artibai Mendigoizale Taldeak argazki lehiaketa antolatzen du. Ez da argazkilari profesionali zuzendutako lehiaketa bat. Justu kontrakoa da, mendizaleontzat antolatuta dago, batez ere, eskualdeko ekintza ezberdinetan parte hartzen dutenentzat. Gonbidatuta zaude parte hartzera.

Ez beldurrik izan. Gure helburua ez da artelan bat lortzea, baizik eta urtean zehar gure mendizale bizitzako zenbait une islatuko dituen argazkiak biltzea. Jasoko diren argazkiekin, urte amaieran, erakusketa bat egitea da gure asmoa. Oinarri sinple batzuk eta sari apalek zure parte hartzea lortzea dute helburu. Eroan zure argazki-makina mendi irteera guztietan. Ziur egon momentu edo tokiren bat aurkituko duzula argazkia ateratzea merezi duenik.

Atara egiozu eta ekarri eiguzu. Ez zara damutuko.

BALDINTZAK:

- 1.- **Lehiakideak:** Edonork hartu leike parte. Izen-emotea dohainik.
- 2.- **Argazki kopurua:** Bakoitzak launa argazki aurkeztu leikez, gehienez, koloreetan zein zuri-baltzean.
- 3.- **Gaia:** Mendi(zaletasun)agaz lotutako argazkiak izango dira.
- 4.- **Eremua:** Aurkezten diran argazkiak bertan inguruan ataratakoak izango dira, derrigorrez:
 - Lea-Artibai.
 - Artibai MT-ak antolatutako urteerak.
 - Urteera bateratuetan (inguruko taldeekin batera egiten diran hileroko urteerak).
- 5.- **Neurriak eta identifikazioa:** formatoa librea izango da, eta argazkiaren neurria: 20x25 zm. (gutxienez) eta 30x45 zm. (gehienez). Argazkiak kartulinaz gogortuta aurkeztuko dira eta atzeko aldean honetxek datuok idatzita: argazkiaren izena, noiz eta non ataratakoa dan eta lehiakidearen adina. Argazki bakoitza kartazal itxi batean aurkeztuko da, azalean hauxe idatzita eroango dauana: **"Artibai MT 2008 Argazki Lehiaketa", eta argazkiaren izena.** Barruan, barriz, lehiakidearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa.
- 6.- **Non aurkeztu:** - Markina-Xemeingo Udaletxeko harrera-lekuan.
 - Artibai MT-aren lokalean (eguenetan, 20:00-21:00)
 - Postaz (korreoz): Artibai MT, Abesua, 10, 48270 Markina-Xemein
- 7.- **Epea:** 2008ko abenduaren 10ean, beranduen.
- 8.- **Sariak:**
 1. saria..... oroigarria eta 100 €.
 2. saria..... domina eta 75 €.
 3. saria..... domina eta 50 €.
 1. bazkidea (Artibai MT) oroigarria eta 80 €
 2. saria ...bazkidea.....domina eta 50 €
 1. saria, 14 urterarte..... domina eta materiala

Sariak ezingo dira pilatu.
- 9.- **Epaimahaia** eta honen ebazpena: Epaimahaia MAZTeko (Markinako Argazki-Zinema Taldea) kideek eta argazkigintzan ezagunak diran zenbait argazkilari/zalek osatuko dabe. Ebazpena apelaezina izango da.
- 10.- **Erakusketa eta sari-banaketa:** Aurretiaz eta banan-banan jakinaraziko jakee interesatuei.
- 11.- Argazkiak **taldearen esku:** Artibai MTK saritutako argazkiak erabili ahal izango ditu eta aurkeztutako edo -zein argazkiren kopia atara ahal izango dau. Helburu komertzialakin erabiltzeko, egileen baimena beharko da.
- 12.- **Itzulketa:** Behin erakusketa amaitutakoan, argazkiak taldearen lokalean egongo dira egileen eskuera (Abesua, 10), hurrengo hiru hilabetetan.
- 13.- **Lehiaketan esku hartzeak baldintza honeek onartzea dakar ezinbestez.**